

## Beste zenbait Iragarpen Ofizial Otros Anuncios Oficiales

**ECONOMIA****ETA PLANGINTZA SAILA****EUSTAT**

**IRAGARPENA**, Euskal Estatistika-Erakundeak (EUSTAT) «Estatística boletina»ren 7. zk. argitaratu dela jakinerazteko dena.

7643

**ARABAKO FORU ALDUNDIA**

**IRAGARPENA**, Maroñoko urtegitik Ayalara, Amurrio eta Llodiora ura eramateko sareak eragindako ondasunak okupatu aurretiko Agiriak egiteari buruzkoa.

7644

**DEPARTAMENTO DE ECONOMIA  
Y PLANIFICACION  
EUSTAT**

ANUNCIO por el que el Instituto Vasco de Estadística (EUSTAT) comunica la publicación del n.º 7 del «Boletín de Estadística».

7643

**DIPUTACION FORAL DE ALAVA**

ANUNCIO relativo al levantamiento de Actas Previas a la Ocupación de los bienes afectados por la Red de Abastecimiento de Agua a Ayala, Amurrio y Llodio desde la Presa de Maroño.

7644

## Partikularren Iragarpenak Anuncios Particulares

**EUSKAL HERRIKO  
AURREZKI-KUTXEN FEDERAZIOA**

**IRAGARPENA**, Aurrezki-Kutxen Federazioaren 1991ko uztailaren aktiboaren eta pasiboaren errefrentziarako ehunekoena.

7673

**FEDERACION DE CAJAS DE AHORROS  
Vasco-Navarras**

ANUNCIO de los tipos de referencia de activo y pasivo de las Cajas de Ahorros Confederadas, correspondientes al mes de julio de 1991.

7673

## Euskal Autonomi Elkarteko Xedapen Orokorrak Disposiciones Generales del País Vasco

**LEHENDAKARITZA****2950**

**525/1991 DEKRETUA**, urriaren 2koa, Euskal Autonomi Elkartearren Administrazio Sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituena eta horien egitekoak eta ihardun-arloak finkatzen dituena.

Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 8, c) atalean aitortzen zaizkidan ahalmenez baliautz, honako hau

**XEDATU DUT:****1. atala.- Xedea.**

Euskal Autonomi Elkartearren Administrazioaren egitura osatzen duten sailak eta beren egiteko eta ihardun-arloak finkatzea du xede Dekretu honek.

**2. atala.- Administrazioaren egitura.**

Honako Sail hauek izango ditu Euskal Autonomi Elkarteko Administrazioak:

a) Industria eta Energia Saila

b) Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

**PRESIDENCIA****2950**

**DECRETO 525/1991**, de 2 de octubre, de creación supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos.

En virtud de las facultades que me atribuye el artículo 8, c) de la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno,

**DISPONGO:****Artículo 1.- Finalidad.**

La determinación de los Departamentos en los que se estructura la Administración de la Comunidad Autónoma y de las funciones y áreas de actuación de los mismos es la establecida por el presente Decreto.

**Artículo 2.- Estructura de la Administración.**

La Administración de la Comunidad Autónoma se organiza en los siguientes Departamentos.

a) Industria y Energía.

b) Educación, Universidades e Investigación.

- c) Lehendakaritza, Lege Araubide eta Autonomi Garapenerako Saila
- d) Herrizaingo Saila
- e) Ogasun eta Finantza Saila
- f) Zuzentza Saila
- g) Osasun Saila
- h) Lan eta Gizarte Segurantza Saila
- i) Kultura Saila
- j) Ekonomi, Plangintza eta Ingurugiro Saila
- k) Garraio eta Herrilan Saila
- l) Hirigintza eta Etxebizitza Saila
- m) Nekazaritza eta Arrantza Saila
- n) Merkataritza eta Turismo Saila

**3. atala.- Sain lehentasun hurrenkeria**

Sain lehentasun hurrenkeria aurreko atalean eza-rritakoaren arauera koa izango da:

**4. atala.- Lehendakaria**

1.- Autonomi Estatutuak, Jaurlaritzaren Legeak eta beste legezko xedapen batzuk Lehendakariari ematen dizkioten egitekoak bete ahal izateko, Lehendakaritzaren Idazkaritzaren laguntza izango du Lehendakariak, Sailburu mailako estatutu pertsonala izango duela ber-tako titularrak. Honako ihardun-arlo hauek dagozkie Idazkaritza horri:

- a) Jaurlaritzaren bozeramaileta.
- b) Gizarte eta erakunde harremanak.
- c) Hizkuntz politika.
- d) Drogazalekeria.
- e) Emakumea.
- f) «Euskadi, 1993. urteko Europan» izeneko ezohizko Plana.
- g) Analisi eta komunikazioa.
- h) Kanpo ekintza.

2.- Emakumearen Euskal Erakundea / Instituto Vasco de la Mujer Organismo Autonomo Administrati-boa eta Interbask, S.A. Baltzu Publikoa, Lehendakaritzaren Idazkaritzari atxikita egongo dira.

3.- Sail baten maila izango du Lehendakaritzaren Idazkaritzak aurrekontu ondorioetarako eta adminis-trazio mailako koordinakuntza eta arrazionalizazio egitekoak edo antzeko beste batzuk garatzeko ezartzen diren sailarteko organu kolegiatuetan, ordezkotza eman ahal izango zaio.

**5. atala.- Egiteko eta ihardun arloen banaketa.**

Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1891 Legeko 8. eta 16. ataletan Lehendakariari eta Jaurlaritzari ematen zaizkien ahalmenen eta Lehendakarioordeei izenda dakizkien ahalmenen kaltetan gabe, 2. atalean aipatu diren Sailek, Sailburuaren zuzendaritzapean beteko dituzte beren egitekoak, hurrengo ataletan zehazten diren ihardun arloei dagozkienetan.

**6. atala.- Industria eta Energia Saila.**

1.- Honako egiteko eta ihardun-arlo hauek dagozkie Industria eta Energia Sailari:

- a) Politika industriala.
- b) Berrikuntza teknologikoa.
- c) Meategiak.
- d) Energia.
- e) Artesautza sustatzea eta indartzea.
- f) Telekomunikazioak.
- k) Kontsumoa.
- g) Sailari atxikita edo pean dauden Organismo Autonomoak, Zuzenbide Pribatupeko Izaiki Publikoak

- c) Presidencia, Régimen Jurídico y Desarrollo Auto-nómico.
- d) Interior.
- e) Hacienda y Finanzas.
- f) Justicia.
- g) Sanidad.
- h) Trabajo y Seguridad Social.
- i) Cultura.
- j) Economía, Planificación y Medio Ambiente.
- k) Transportes y Obras Públicas.
- l) Urbanismo y Vivienda.
- m) Agricultura y Pesca.
- n) Comercio y Turismo.

**Artículo 3.- Orden de precedencia departamental.**

El orden de precedencia de los Departamentos se ajustará a lo establecido en el artículo anterior.

**Artículo 4.- Lehendakari.**

1.- Para el ejercicio de las funciones que le atribuye el Estatuto de Autonomía, la Ley de Gobierno y otras disposiciones legales, el Lehendakari estará asistido por la Secretaría de la Presidencia, cuyo titular tendrá el estatuto personal de Consejero. Correspondrán a esta Secretaría las siguientes áreas de actuación:

- a) Portavoz del Gobierno.
- b) Relaciones sociales e institucionales.
- c) Política lingüística.
- d) Drogodependencias.
- e) Mujer.
- f) Plan extraordinario «Euskadi en la Europa de 1993».
- g) Análisis y comunicación.
- h) Acción exterior.

2.- Se adscribe a la Secretaría de la Presidencia el Organismo Autónomo Administrativo Emakumearen Euskal Erakundea/Instituto Vasco de la Mujer y la Sociedad Pública Interbask, S.A.

3.- La Secretaría de la Presidencia tendrá la consideración de Departamento a efectos presupuestarios y podrá dársele representación en órganos colegiados de carácter interdepartamental establecidos para el desarrollo de funciones de coordinación y racionalización administrativas u otros análogos.

**Artículo 5.- Distribución de funciones y áreas de actuación.**

Sin perjuicio de las competencias que atribuyen al Lehendakari y al Gobierno los artículos 8 y 16 de la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno y las que se asignen a los Vicepresidentes, los Departamentos citados en el artículo 2 ejercerán, bajo la dirección de su Titular, sus funciones respectivas en las áreas de actuación que se señalan en los artículos siguientes.

**Artículo 6.- Departamento de Industria y Energía.**

1.- Al Departamento de Industria y Energía le corresponden las siguientes funciones y áreas de actuación:

- a) Política industrial.
- b) Innovación tecnológica.
- c) Minas.
- d) Energía.
- e) Fomento y promoción de la artesanía.
- f) Telecomunicaciones.
- k) Consumo.
- g) Dirigir, de acuerdo con las Leyes y los reglamen-to, los Organismos Autónomos, Entes Públicos de

**eta Baltzu Publikoak zuzentzea, Lege eta arautegiek ezartzen dutenaren arabera.**

**h) Legeek eta arautegiek eman diezazkioten gainontzeko ahalmenak.**

**2.- Energiaren Euskal Erakundea / Ente Vasco de la Energía (EEE/EVE) Zuzenbide Pribatupeko Izaiki Publikoa, Industriaren Suztapen eta Eraldaketarako Baltzua / Sociedad de Promoción y Reconversión Industrial, S.A. (ISEB/SPRI) eta Servicios Públicos Industriales y de Seguridad, S.A. (SERPINSA) delako Baltzu Publikoak Sail honi atxikita egongo dira.**

**7. atala.- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.**

**Honako egiteko eta ihardun-arlo hauetako dagozkio Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari:**

**a) Autonomi Estatutuan ezartzen diren eskudun-tzak, bai erregimen orokorpeko, erregimen berezipeko eta goi mailako irakaskuntzei dagozkienetan.**

**b) Zientzi alorreko politika; teoria eta aplikazio mai-lako ikerketak sustatzea eta koordinatzea.**

**c) Sailari atxikita dauden Erakunde Autonomoak, Zuzenbide Pribatupeko Izaiki Publikoak eta Baltzu Publikoak gidatzea, Legeek eta arautegiek ezartzen dutenaren arabera.**

**d) Legeek eta arautegiek eman diezazkioten gainontzeko ahalmenak.**

**8. atala.- Lehendakaritza, Lege Araubide eta Autonomi Garapenerako Saila.**

**1.- Honako egiteko eta ihardun-arlo hauetako dagozkio Lehendakaritza, Lege Araubide eta Autonomi Garapenerako Sailari:**

**a) Jaurlaritzaren Idazkaritza**

**b) Legebiltzarrarekiko eta instituzio arteko harremanak eta komunikazioak.**

**c) Autonomi garapeneraren politika eta, horretarako, Sailen ekintzak koordinatzea.**

**d) Autonomi Estatutuaren defentsa juridikoa**

**e) Funtzio publikoa, administrazio eraketa, informazio sistema, langilegoaren juridiko eta ordainketa mai-lako erregimena. Administrazioaren erreforma susta-tzea, zerbitzu publikoak dituen beharrei egokitu ahal izateko.**

**f) Legezkotasunaren barne kontrol mailako egiteko-ak eta aholkularitza juridiko orokorra betetzea.**

**g) Eusko Jaurlaritzak eta bere organuek izan ditzaten auzietan, horien ordezkotza eta defentsa egitea.**

**h) Toki Administrazioari dagozionetan, Legeek eta arautegiek Jaurlaritzari ematen dizkioten egitekoak betetzea.**

**i) Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria. Argitalpenak.**

**j) Hainbat Saileri dagozkienei zerbitzuak.**

**k) Sailari atxikita dauden Erakunde Autonomoak, Zuzenbide Pribatupeko Izaiki Publikoak eta Baltzu Publikoak gidatzea, Legeek eta arautegiek ezartzen dutenaren arabera.**

**l) Legeek eta arautegiek eman diezazkioten gainontzeko ahalmenak.**

**2.- Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea / Instituto Vasco de la Administración Pública (HAEE/IVAP) izeneko Organismo Autonomo Administrativo eta Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarte, S.A. / Socie-**

**Derecho Privado y las Sociedades Públicas adscritas o dependientes del Departamento.**

**h) Las demás facultades que le atribuyan las Leyes y los reglamentos.**

**2.- Se adscriben a este Departamento el Ente Público de Derecho Privado Energiaren Euskal Erakundea/Ente Vasco de la Energía (E.E.E./E.V.E.), y las Sociedades Públicas Industriaren Suztapen eta Eraldaketarako Baltzua/Sociedad de Promoción y Reconversión Industrial, S.A. (I.S.E.B./S.P.R.I.) y Servicios Públicos Industriales y de Seguridad, S.A. (SERPINSA).**

**Artículo 7.- Departamento de Educación, Universidades e Investigación.**

**Al Departamento de Educación, Universidades e Investigación le corresponden las siguientes funciones y áreas de actuación:**

**a) Las facultades que se derivan del Estatuto de Autonomía en relación a las enseñanzas tanto de régimen general como especial con inclusión de sus diversas etapas y niveles, y la educación superior.**

**b) Política científica; impulso y coordinación de la investigación teórica y aplicada.**

**c) Dirigir, de acuerdo con las Leyes y los reglamentos, los Organismos Autónomos, Entes Públicos de Derecho Privado y Sociedades Públicas adscritas al Departamento.**

**d) Las demás facultades que le atribuyan las Leyes y los reglamentos.**

**Artículo 8.- Departamento de Presidencia, Régimen Jurídico y Desarrollo Autonómico.**

**1.- Al Departamento de Presidencia, Régimen Jurídico y Desarrollo Autonómico le corresponden las siguientes funciones y áreas de actuación:**

**a) Secretaría del Gobierno.**

**b) Las relaciones y comunicaciones con el Parlamento e interinstitucionales.**

**c) Política de desarrollo autonómico y la coordinación, a tal efecto, de las actuaciones de los Departamentos.**

**d) Defensa jurídica del Estatuto de Autonomía.**

**e) Función pública, organización administrativa y sistema de información, régimen jurídico y retributivo del personal. Impulsar la reforma de la Administración para adecuarla a las necesidades del servicio público.**

**f) Ejercer las funciones de control interno de legalidad y asesoría jurídica general.**

**g) La representación y defensa en juicio del Gobierno Vasco y sus órganos.**

**h) Ejercer las funciones que las Leyes y los reglamentos atribuyen al Gobierno en materia de Administración Local.**

**i) Boletín Oficial del País Vasco. Publicaciones.**

**j) Servicios multidepartamentales.**

**k) Dirigir, de acuerdo con las Leyes y los reglamentos, los Organismos Autónomos, Entes Públicos de Derecho Privado y Sociedades Públicas adscritas al Departamento.**

**l) Las demás facultades que le atribuyan las Leyes y los reglamentos.**

**2.- Se adscriben a este Departamento el Organismo Autónomo Administrativo Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea/Instituto Vasco de la Administración Pública (H.A.E.E./I.V.A.P.) y la Sociedad Pública**

**dad Informática del Gobierno Vasco (EJIE) Baltzu Publikoa, Sail honi atxikita egongo dira.**

**9. atala.- Herrizaingo Saila.**

**Honako egiteko eta ihardun-arlo hauek dagozkio Herrizaingo Sailari:**

- a) Euskal Autonomi Elkarteko Ertzaintza.
- b) Hauteskunde Administratzioa.
- c) Herri babesia.
- d) Euskal Autonomi Elkarteko errepideetatiko gurpidunen trafikoko polizia.
- e) Joku, postura eta ikuskizunak.
- f) Transmisiones eta komunikazioak.
- g) Parke higikorra
- h) Sailari atxikita dauden Erakunde Autonomoak, Zuzenbide Pribatupeko Izaiki Publikoak eta Baltzu Publikoak gidatzea, Legeek eta arautegiek ezartzen dutenaren arabera.
- i) Legeek eta arautegiek eman diezazkioten gainontzeko ahalmenak.

**10. atala.- Ogasun eta Finantza Saila.**

**Honako egiteko eta ihardun-arlo hauek dagozkio Ogasun eta Finantza Sailari:**

- a) Euskal Autonomi Elkartearren Aurrekontu Orokorra zuzendu, landu, horien kudeaketa orokorra egin, zaindu eta arta eramatea.
- b) Artekaritza, auditoria, kontaduritzza eta erantzukizun kontagarriak.
- c) Finantza politika eta finantza erakundeeekiko harremanak.
- d) Diruzaintza, zorrak egitea eta bermeak ematea.
- e) Ondare eta kontratazioa.
- f) Ekonomi Itunea, Estatuarentzako kupoak eta Lurralte Historikoekin ekarketak.
- g) Transferentziengatik diren eskuduntza eta/edo zerbitzuen baloraketa.
- h) Zergen Administratzioa eta ekonomi-administratio mailako murtziloak.
- i) Sailari atxikita dauden Erakunde Autonomoak, Zuzenbide Pribatupeko Izaiki Publikoak eta Baltzu Publikoak gidatzea, Legeek eta arautegiek ezartzen dutenaren arabera.
- j) Legeek eta arautegiek eman diezazkioten gainontzeko ahalmenak.

**11. atala.- Zuzentza Saila.**

**Honako egiteko eta ihardun-arlo hauek dagozkio Zuzentza Sailari:**

- a) Botere Judizialarekiko harremanak zaintza.
- b) Balibideak jartzea, Zuzentza Administratzioak ihardun dezan.
- c) Zigor establezimenduak eta, bereziki, horien antolaera, iharduera eta zigorrei buruzko legeak betetza, Zigor Administrazioko organu zentralei legeek ematen dizkienetan eskuduntzak erabiltzea bereganatuz.
- d) Notariak eta Jabego erregistratzaileak izendatzea.
- e) Elkarte, Iraskunde eta Elkargo Profesionalei buruzko erregimen orokorra, Sailek, beren eremu barruan, horiekiko izan ditzaten harremanen kaltetan gabe.
- f) Giza Eskubideen sustapena.
- g) Euskararen erabilpena arauzkotzeko azaroaren 24eko 10/1982 oinarrizko Legeak hiritarrei ematen dizkien eskubideak erabili ahal izatea bermatzea Zuzentza Administratzioan.
- h) Sailari atxikita dauden Erakunde Autonomoak,

**Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkartea, S.A./Sociedad Informática del Gobierno Vasco (E.J.I.E.).**

**Artículo 9.- Departamento de Interior.**

Al Departamento de Interior le corresponden las siguientes funciones y áreas de actuación:

- a) Policía de la Comunidad Autónoma.
- b) Administración electoral.
- c) Protección civil.
- d) Policía de tráfico rodado por las vías de comunicación de la Comunidad Autónoma.
- e) Juego, apuestas y espectáculos.
- f) Transmisiones y comunicaciones.
- g) Parque móvil.
- h) Dirigir, de acuerdo con las Leyes y los reglamentos, los Organismos Autónomos, Entes Públicos de Derecho Privado y Sociedades Públicas adscritos al Departamento.
- i) Las demás facultades que le atribuyan las Leyes y los reglamentos.

**Artículo 10.- Departamento de Hacienda y Finanzas.**

Al Departamento de Hacienda y Finanzas le corresponden las siguientes funciones y áreas de actuación:

- a) Dirección, elaboración, gestión general, seguimiento y control de los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma.
- b) Intervención, auditoría, contabilidad y responsabilidades contables.
- c) Política financiera y relaciones con las entidades financieras.
- d) Tesorería, endeudamiento y prestación de garantías.
- e) Patrimonio y contratación.
- f) Concierto Económico, cupos al Estado y aportaciones de los Territorios Históricos.
- g) Valoración de competencias y/o servicios objeto de transferencia.
- h) Administración tributaria y reclamaciones económico/administrativas.
- i) Dirigir, de acuerdo con las Leyes y los reglamentos, los Organismos Autónomos, Entes Públicos de Derecho Privado y Sociedades Públicas adscritos al Departamento.
- j) Las demás facultades que le atribuyan las Leyes y los reglamentos.

**Artículo 11.- Departamento de Justicia.**

Al Departamento de Justicia le corresponden las siguientes funciones y áreas de actuación:

- a) Atender las relaciones con el Poder Judicial.
- b) Provisión de medios para el funcionamiento de la Administración de Justicia.
- c) Establecimientos penitenciarios, en especial su organización, funcionamiento y ejecución de la legislación penitenciaria, asumiendo el ejercicio de las facultades que ésta atribuya a los órganos centrales de la Administración penitenciaria.
- d) Nombramiento de Notarios y Registradores de la Propiedad.
- e) Régimen general de Asociaciones, Fundaciones y Colegios Profesionales, sin perjuicio de las relaciones que, respecto a estos, mantengan los Departamentos en su ámbito sectorial.
- f) Promoción de los Derechos Humanos.
- g) Garantizar, en el ámbito de la Administración de Justicia, el ejercicio de los derechos reconocidos a los ciudadanos por la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, básica de normalización del uso del Euskera.
- h) Dirigir, de acuerdo con las Leyes y los reglamentos

Zuzenbide Pribatupeko Izaiki Publikoak eta Baltzu Publikoak gidatzea, Legeek eta arautegiek ezartzen dutenaren arabera.

i) Legeek eta arautegiek eman diezazkioten gainontzeko ahalmenak.

#### 12. atala.- Osasun Saila.

1. Honako egiteko eta ihardun-arlo hauet dagozkio Osasun Sailari:

- a) Osasunketaren plangintza eta eraketa.
- b) Osasun publikoa eta elikadura-higiena.
- c) Zainketa epidemiologikoa.
- d) Farmazien eraketa.

e) Sailari atxikita edo pean dauden Organismo Autonomoak, Zuzenbide Pribatupeko Izaiki Publikoak eta Baltzu Publikoak zuzentzea, Legeek eta arautegiek ezartzen dutenaren arabera.

f) Legeek eta arautegiek eman diezazkioten gainontzeko ahalmenak.

2. Servicio Vasco de Salud - Osakidetza Organismo Autonomo Administrativo Sail honi atxikita egongo da.

#### 13. atala.- Lan eta Gizarte Segurantza Saila.

1.- Honako egiteko eta ihardun-arlo hauet dagozkio Lan eta Gizarte Segurantza Sailari:

- a) Lan arloari buruzko legeek, lan harremanei buruz ezartzen dutena aplikatzea.
- b) Enplegu politika eta enplagurako gaitza.
- c) Gizarte ekonomia: Kooperatibak eta akziokako lan baltzuak.
- d) Gizarte ongizatea.
- e) Gizarte prebisiorako erakundeak.
- f) Gizarte Segurantza zerbitzuen zuzendaritza, antolaketa eta administrazioa egitea eta horren erregimen juridikoa kudeatzea.
- g) Segurtasuna eta higienea lanean.
- h) Sailari atxikita edo horren pean dauden Erakunde Autonomoak, Zuzenbide Pribatupeko Izaiki Publikoak eta Baltzu Publikoak gidatzea, Legeek eta arautegiek ezartzen dutenaren arabera.
- i) Legeek eta arautegiek eman diezazkioten gainontzeko ahalmenak.

2.- Honako Baltzu Publiko hauet Sail honi atxikita geldituko dira: Garapen Bereziko Arabako Alor eta Aldeen Eraentzarako A.B., Garapen Bereziko Bizkaiko Alor eta Aldeen Eraentzarako A.B. eta Garapen Bereziko Gipuzkoako Alor eta Aldeen Eraentzarako A.B.

#### 14. atala.- Kultura Saila.

1.- Honako egiteko eta ihardun-arlo hauet dagozkio Kultura Sailari:

- a) Kirolak.
- b) Gazteria eta komunitate garapena.
- c) Historia-Arte Ondarearen kudeaketa eta zainketa; museo, liburutegi eta artxibategiak.
- d) Euskararen sustapena.
- e) Arte eta kultura mailako ihardunak eta horien hedapena.
- f) Gizarte komunikabideak; irratia kontzesioak eta frekuentzien esleipena.
- g) Sailari atxikita edo horren pean dauden Erakunde Autonomoak, Zuzenbide Pribatupeko Izaiki Publikoak eta Baltzu Publikoak gidatzea, Legeek eta arautegiek ezartzen dutenaren arabera.
- h) Legeek eta arautegiek eman diezazkioten gainontzeko ahalmenak.

tos, los Organismos Autónomos, Entes Públicos de Derecho Privado y Sociedades Públicas adscritos al Departamento.

i) Las demás facultades que le atribuyan las Leyes y los Reglamentos.

#### Artículo 12.- Departamento de Sanidad.

1.- Al Departamento de Sanidad le corresponden las siguientes funciones y áreas de actuación:

- a) Planificación y ordenación sanitaria.
- b) Salud pública e higiene alimentaria.
- c) Vigilancia epidemiológica.
- d) Ordenación farmacéutica.
- e) Dirigir, de acuerdo con las Leyes y los reglamentos, los Organismos Autónomos, Entes Públicos de Derecho Privado y las Sociedades Públicas adscritos o dependientes del Departamento.

f) Las demás facultades que le atribuyan las Leyes y los reglamentos.

2.- Se adscribe a este Departamento el Organismo Autónomo Administrativo Servicio Vasco de Salud-Osakidetza.

#### Artículo 13.- Departamento de Trabajo y Seguridad Social.

1.- Al Departamento de Trabajo y Seguridad Social le corresponden las siguientes funciones y áreas de actuación:

- a) Ejecución de la legislación laboral en materia de relaciones laborales.
- b) Política de empleo y formación para el empleo.
- c) Economía social: cooperativas y sociedades anónimas laborales.
- d) Bienestar social.
- e) Entidades de previsión social.
- f) Dirección, organización y administración de los servicios de la Seguridad Social y gestión de su régimen económico.
- g) Seguridad e higiene en el trabajo.
- h) Dirigir, de acuerdo con las Leyes y los reglamentos, los Organismos Autónomos, Entes Públicos de Derecho Privado y las Sociedades Públicas adscritos o dependientes del Departamento.
- i) Las demás facultades que le atribuyan las Leyes y los Reglamentos.

2.- Se adscriben a este Departamento las Sociedades Públicas S.A. Gestora de las Areas y Zonas de Desarrollo Especial de Alava, S.A. Gestora de las Areas y Zonas de Desarrollo Especial de Bizkaia y S.A. Gestora de las Areas y Zonas de Desarrollo Especial de Gipuzkoa.

#### Artículo 14.- Departamento de Cultura.

1.- Al Departamento de Cultura le corresponden las siguientes funciones y áreas de actuación:

- a) Deportes.
- b) Juventud y desarrollo comunitario.
- c) Gestión y protección del Patrimonio Histórico Artístico; museos, bibliotecas y archivos.
- d) Promoción del euskera.
- e) Actividades artísticas y culturales y su difusión.
- f) Medios de comunicación social; concesión de emisoras y asignación de frecuencias.
- g) Dirigir, de acuerdo con las Leyes y los reglamentos, los Organismos Autónomos, Entes Públicos de Derecho Privado y Sociedades Públicas adscritos o dependientes del Departamento.
- h) Las demás facultades que le atribuyan las Leyes y los reglamentos.

2.- Helduen Alfabetatze Berreuskalduntze Erakunde / Instituto de Alfabetización y Reesuskaldunización de adultos (HABE), Soin Hezkuntzako Euskal Erakunde / Instituto Vasco de Educación Física (SHEE/IVEF) Organismo Autónomo Administrativo, Euskal Irrati Telebista / Radio Televisión Vasca EITB) Zuzenbide Pribatupeko Izaiki Publikoa eta Euskadi Orkestra, A.B. / Orquesta de Euskadi, S.A. eta Euskal Media, S.A. Baltzu Publikoak Sail honi atxikita egongo dira.

15. *atala.*- Ekonomi, Plangintza eta Ingurugiro Saila.

1.- Honako egiteko eta ihardun-arlo hauek dagozkio Ekonomi eta Plangintza Sailari:

- a) Plagintza ekonomikoa.
- b) Ikerketa eta metodo ekonomikoak. Ekonomi maiako egoera eta horri buruzko prebisioak.
- c) Estatistika.
- d) Ingurugiroa.
- e) Sailari atxikita dauden Erakunde Autonomoak, Zuzenbide Pribatupeko Izaiki Publikoak eta Baltzu Publikoak gidatzea, Legeek eta arautegiek ezartzen dutenaren arabera.
- f) Legeek eta arautegiek eman diezazkioten gainontzeko ahalmenak.

2.- Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística (EEE/IVE) Organismo Autónomo Administrativo eta Industria Hondakinenzako Bateango Enularaztegia, A.B. / Sociedad Promotora para la Instalación de un Tratamiento Centralizado de Residuos Industriales S.A. (IHOBE) Baltzu Publikoak Sail honi atxikita egongo dira.

16. *atala.*- Garraio eta Herrilan Saila.

1.- Honako egiteko eta ihardun-arlo hauek dagozkio Garraio eta Herrilan Sailari:

- a) Urak.
- b) Trenbideak.
- c) Bide sarea.
- d) Lurretikako, itsasotikako, ibaietikako eta kabletikako garraioak.
- e) Heliportuak eta aireportuak.
- f) Portuak eta itsas arazoak.
- g) Kanalak eta ureztaketak.
- h) Metereología.
- i) Sailari atxikita edo pean dauden Organismo Autonomoak, Zuzenbide Pribatupeko Izaiki Publikoak eta Baltzu Publikoak zuzentzea, Lege eta arautegiek ezartzen dutenaren arabera.
- j) Legeek eta arautegiek eman diezazkioten gainontzeko ahalmenak.

2.- Eusko Trenbideak / Ferrocarriles Vascos, S.A. (ET / FF.VV.) eta Bilboko Metrorako Ingeniaritza, A.B. / Ingeniería para el Metro de Bilbao, S.A. (IMEBISA) Baltzu Publikoak Sail honi atxikita egongo dira.

17. *atala.*- Hirigintza eta Etxebizitzta Saila.

1.- Honako egiteko eta ihardun-arlo hauek dagozkio Hirigintza eta Etxebizitzta Sailari:

- a) Lurraldea eta itsasertzak antolatzea.
- b) Hirigintza.
- c) Etxebizitzta.

2.- Se adscriben a este Departamento los Organismos Autónomos Administrativos, Helduen Alfabetatze Berreuskalduntzerako Erakunde/Instituto de Alfabetización y Reesuskaldunización de adultos (H.A.B.E.) y Euskal Kirol Institutua/Instituto Vasco de Educación Física (E.K.I./I.V.E.F.), el Ente Público de Derecho Privado Euskal Irrati Telebista/Radio Televisión Vasca (E.I.T.B.), y las Sociedades Públicas Euskadi Orkestra, A.B./Orquesta de Euskadi, S.A. y Euskal Media, S.A.

*Artículo 15.*- Departamento de Economía, Planificación y Medio Ambiente.

1.- Al Departamento de Economía, Planificación y Medio Ambiente le corresponden las siguientes funciones y áreas de actuación:

- a) Planificación económica.
- b) Estudios y métodos económicos. Coyuntura y previsión económica.
- c) Estadística.
- d) Medio Ambiente.
- e) Dirigir, de acuerdo con las Leyes y los reglamentos, los Organismos Autónomos, Entes Públicos de Derecho Privado y Sociedades Públicas adscritos al Departamento.
- f) Las demás facultades que le atribuyan las Leyes y los reglamentos.

2.- Se adscribe a este Departamento el Organismo Autónomo Administrativo Euskal Estatistika Erakundea/Instituto Vasco de Estadística (E.E.E./I.V.E.) y la Sociedad Pública Industria Hondakinenzako Bateango Enularaztegia, A.B./Sociedad Promotora para la Instalación de un Tratamiento Centralizado de Residuos Industriales, S.A. (IHOBE).

*Artículo 16.*- Departamento de Transportes y Obras Públicas.

1.- Al Departamento de Transportes y Obras Públicas le corresponden las siguientes funciones y áreas de actuación:

- a) Aguas.
- b) Ferrocarriles.
- c) Red viaria.
- d) Transportes terrestres, marítimos, fluviales y por cable.
- e) Helipuertos y aeropuertos.
- f) Puertos y asuntos marítimos.
- g) Canales y Regadíos.
- h) Meteorología.

i) Dirigir, de acuerdo con las Leyes y los reglamentos, los Organismos Autónomos, Entes Públicos de Derecho Privado y las Sociedades Públicas adscritas o dependientes del Departamento.

j) Las demás facultades que le atribuyan las Leyes y los reglamentos.

2.- Se adscriben a este Departamento las Sociedades Públicas Eusko Trenbideak/Ferrocarriles Vascos, S.A. (E.T./FF.VV.) y Bilboko Metrorako Ingeniaritza, A.B./Ingeniería para el Metro de Bilbao, S.A. (IMEBISA).

*Artículo 17.*- Departamento de Urbanismo y Vivienda.

1.- Al Departamento de Urbanismo y Vivienda le corresponden las siguientes funciones y áreas de actuación:

- a) Ordenación del territorio y del litoral.
- b) Urbanismo.
- c) Vivienda.

**d) Arkitektura.**

e) Sailari atxikita edo pean dauden Organismo Autonomoak, Zuzenbide Pribatupeko Izaiki Publikoak eta Baltzu Publikoak zuzentzea, Lege eta arautegiek ezartzen dutenaren arabera.

f) Legeek eta arautegiek eman diezazkioten gainontzeko ahalmenak.

2.- Industri Lurraren Sustapen eta Gestiorako Elkarlea, A.B. / Promoción y Gestión de Suelo Industrial, S.A. (PROGESINSA) eta Euskadiko Etxebizitza eta Lurra Elkartea / Sociedad de Vivienda y Suelo de Euskadi, S.A. (VISESA) Baltzu Publikoak Sail honi atxikita egongo dira.

**18. atala.- Nekazaritza eta Arrantza Saila.**

1.- Honako egiteko eta ihardun-arlo hauet dagozkio Nekazaritza eta Arrantza Sailari:

a) Nekazaritza eta landalurren sustapena eta antolaketa.

b) Bialiabide naturalak, baso eta naturaren konserbazio zerbitzua antolatzea.

c) Abelzaintza eta mendiak.

d) Kontinenteko ehize eta arrain aberastasuna probetxetzeko erregimena.

e) Arrantza.

f) Nekazal, arrantza eta elikagaien industriak eta komerzializazioa.

g) Nekazal-eklikadura politika: Jatorri izena sustatzea eta tipifikatzea. Nekazaritza-eklikadura produktuen kalitate kontrola. Mahastizaintza eta enologia.

h) Nekazaritza, itsaso eta arrantzarako gaitza.

i) Nekazaritza eta ozeano ikerketa, Dekretu honetako 10 b) atalean ezartzen denaren kaltetan gabe.

j) Sailari atxikita edo pean dauden Organismo Autonomoak, Zuzenbide Pribatupeko Izaiki Publikoak eta Baltzu Publikoak zuzentzea, Lege eta arautegiek ezartzen dutenaren arabera.

k) Legeek eta arautegiek eman diezazkioten gainontzeko ahalmenak.

2.- Arrantzuarekiko Zientzi eta Teknika Iraskundea, A.B. / Instituto para la Ciencia y la Tecnología Pesquera, S.A. (AZTI) Baltzu Publikoak Sail honi atxikita egongo da.

**19. atala.- Merkataritza eta Turismo Saila**

Honako egiteko eta ihardun-arlo hauet dagozkio Merkataritza eta Turismo Sailari:

a) Merkataritza.

b) Merkataritza, Industria eta Itsasketa Bazkundeak.

c) Prezioen Politika.

d) Kontsumoa.

e) Turismoa.

f) Sailari atxikita edo pean dauden Organismo Autonomoak, Zuzenbide Pribatupeko Izaiki Publikoak eta Baltzu Publikoak zuzentzea, Lege eta arautegiek ezartzen dutenaren arabera.

g) Legeek eta arautegiek eman diezazkioten gainontzeko ahalmenak.

**GEHIGARRIZKO XEDAPENAK**

*Lehena.- Azken Xedapenetatik Lehenengoan aipatzen diren Sailentzat ezarritakoaren kaltetan gabe, gainontzeko Sailek beren egitura organikoari eutsiko diote.*

*Bigarrena.- Industria eta Energi Sailordetza, Industri*

**d) Arquitectura.**

e) Dirigir, de acuerdo con las Leyes y los reglamentos, los Organismos Autónomos, Entes Públicos de Derecho Privado y las Sociedades Públicas adscritos o dependientes del Departamento.

f) Las demás facultades que le atribuyan las Leyes y los reglamentos.

2.- Se adscriben a este Departamento las Sociedades Públicas Industri Lurraren Sustapen eta Gestiorako Elkarlea, A.B./Promoción y Gestión de Suelo Industrial, S.A. (PROGESINSA) y Euskadiko Etxebizitza eta Lurra Elkartea/Sociedad de Vivienda y Suelo de Euskadi, S.A. (V.I.S.E.S.A.).

**Artículo 18.- Departamento de Agricultura y Pesca.**

1.- Al Departamento de Agricultura y Pesca le corresponden las siguientes funciones y áreas de actuación:

a) Promoción y ordenación agraria y del medio rural.

b) Ordenación de recursos naturales y servicio forestal y de conservación de la naturaleza.

c) Ganadería y montes.

d) Régimen de aprovechamiento de la riqueza cinegética y piscícola continental.

e) Pesca.

f) Industrias y comercialización agrarias, pesqueras y alimentarias.

g) Política agroalimentaria: promoción, tipificación, denominación de origen y control de calidad de productos agroalimentarios. Viticultura y enología.

h) Formación agraria y náutico pesquera.

i) Investigación agraria y oceanográfica, sin perjuicio de lo previsto en el artículo 10.b) del presente Decreto.

j) Dirigir, de acuerdo con las Leyes y los reglamentos, los Organismos Autónomos, Entes Públicos de Derecho Privado y las Sociedades Públicas adscritos o dependientes del Departamento.

k) Las demás facultades que le atribuyan las Leyes y los reglamentos.

2.- Se adscribe a este Departamento la Sociedad Pública Arrantzuarekiko Zientzia eta Teknika Iraskundea, A.B./Instituto para la Ciencia y la Tecnología Pesquera, S.A. (A.Z.T.I.).

**Artículo 19.- Departamento de Comercio y Turismo.**

Al Departamento de Comercio y Turismo le corresponden las siguientes funciones y áreas de actuación:

a) Comercio.

b) Cámaras de Comercio, Industria y Navegación.

c) Política de Precios.

d) Consumo.

e) Turismo.

f) Dirigir, de acuerdo con las leyes y los reglamentos, los Organismos Autónomos, Entes Públicos de Derecho Privado y Sociedades Públicas adscritos al Departamento.

g) Las demás facultades que le atribuyan las leyes y los reglamentos.

**DISPOSICIONES ADICIONALES**

*Primera.- Sin perjuicio de lo dispuesto en la Disposición Final Primera para los Departamentos en ella citados, el resto de los Departamentos mantendrán su actual estructura orgánica.*

*Segunda.- Las Viceconsejerías de Industria y Ener-*

**Administrazio eta Politikarako Sailordetza, Teknologia eta Berrikuntza Sailordetza, Ekonomi Koordinazio, Antolakuntza eta Kudeaketarako Sailordetza, eta horiei gaur egun atxikita dauden Zuzendaritzak, hauen administracio unitateak eta guzti, bai eta ezabatu den Industria eta Merkataritza Saileko Zerbitzu Zuzendaritza ere, Industria eta Energia Sailari atxikiko zaizkio.**

**Hirugarrena.-** Kultura Sailordetza, Gazteria eta Kirol Sailordetza, eta hauei gaur egun atxikita dauden Zuzendaritzak, beren administracio unitateak eta guzti, bai eta ezabatu den Kultura eta Turismo Saileko Zerbitzu Zuzendaritza ere, Kultura Sailari atxikiko zaizkio.

**Laugarrena.-** Ezabatu den Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailari atxikita zeuden Ingurugiro Sailordetza eta Ingurugiro Baliabideen eta Ingurugiro Kalitatearen Zuzendaritzak, beren administracio unitateak eta guzti, Ekonomia, Plangintza eta Ingurugiro Sailari atxikita gelditzen dira.

**Bosgarrena.-** Lurralte-Antolaketaren Sailordetza eta honi gaur egun atxikita dauden Zuzendaritzak, beren administracio unitateak eta guzti, bai eta ezabatu den Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailari atxikitako Zerbitzu Zuzendaritza ere, Hirigintza eta Etxebizitza Sailari atxikiko zaizkio.

**Seigarrena.-** Ezabatu den Industria eta Merkataritza Sailari atxikita zeuden Merkataritza eta Kontsumo Sailordetza eta Merkataritzako Administrazio eta Politikarako Zuzendaritza, Kanpo Merkataritza eta Ekonomi Lankidetza Sustatzeko Zuzendaritza eta Kontsumo Zuzendaritza, eta ezabatu den Kultura eta Turismo Sailari atxikita zeuden Turismo Sailordetza eta Turismo Zuzendaritza, administracio unitateak eta guzti, Merkataritza eta Turismo Sailari atxikita gelditzen dira.

#### ALDIBATERAKO XEDAPENA

Zerbitzu Zuzendaritza bat sortzen da, behin-behingoz, Merkataritza eta Turismo Sailean, bere izaerari dagozkion eginkizunak izango dituena.

#### INDARGABETZEZKO XEDAPENA

Euskal Autonomi Elkartearren Administrazioko Sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituena eta horien egi-tekoak eta ihardun-arloak finkatzen dituen otsailaren 6ko 15/1991 Dekretua indargabetuta gelditzen da.

#### AZKEN XEDAPENENAK

**Lehenengoa.-** Dekretu honek indarra hartu eta bi hilabeteko epearen barruan, gehienez, Industria eta Energia Sailburuak, Ekonomia, Plangintza eta Ingurugiro Sailburuak, Hirigintza eta Etxebizitza Sailburuak, Merkataritza eta Turismo Sailburuak dagozkien arautegi organikoek egitasmoak aurkeztuko dizkiote Lehen-dakariari, honek onar ditzan, Dekretu horretan ezarritakoari egokitzeko beharrezko den neurrian, Jaurlari-zari buruzko Legearren 26.2 atalean ezarritakoaren arabera.

**Bigarrena.-** Ogasun eta Finantza Sailak, Dekretu horretan ezarritako betetzeko xedezez, beharrezko diren eragiketak egindo ditu aurrekontuei dagozkienetan.

**Hirugarrena.-** Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa

gía, de Administración y Política Industrial, de Tecnología e Innovación, de Coordinación, Organización y Gestión Económica y las Direcciones actualmente adscritas a éstas, con sus unidades administrativas, junto a la Dirección de Servicios del extinto Departamento de Industria y Comercio se integrarán en el Departamento de Industria y Energía.

**Tercera.-** Las Viceconsejerías de Cultura y de Juventud y Deportes, y las Direcciones actualmente adscritas a éstas, con sus unidades administrativas, junto a la Dirección de Servicios del extinto Departamento de Cultura y Turismo se integrarán en el Departamento de Cultura.

**Cuarta.-** La Viceconsejería de Medio Ambiente y las Direcciones de Recursos Ambientales y de Calidad Ambiental, encuadradas en el extinto Departamento de Urbanismo, Vivienda y Medio Ambiente, quedan adscritas, con sus unidades administrativas, al Departamento de Economía, Planificación y Medio Ambiente.

**Quinta.-** La Viceconsejería de Ordenación del Territorio y las Direcciones actualmente adscritas a ésta, con sus unidades administrativas, junto con la Dirección de Servicios del extinto Departamento de Urbanismo, Vivienda y Medio Ambiente, se integrarán en el Departamento de Urbanismo y Vivienda.

**Sexta.-** La Viceconsejería de Comercio y Consumo y las Direcciones de Administración y Política Comercial, de Promoción del Comercio Exterior y Cooperación Económica y de Consumo, encuadradas en el extinto Departamento de Industria y Comercio, y la Viceconsejería de Turismo y la Dirección de Turismo, del extinto Departamento de Cultura y Turismo, quedan adscritas, con sus unidades administrativas, al Departamento de Comercio y Turismo.

#### DISPOSICION TRANSITORIA

En el Departamento de Comercio y Turismo se crea una Dirección de Servicios que, con carácter provisional, llevará las funciones correspondientes a un órgano de su naturaleza.

#### DISPOSICION DEROGATORIA

Queda derogado el Decreto 15/1991 de 6 de febrero, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos.

#### DISPOSICIONES FINALES

**Primera.-** En el plazo máximo de dos meses desde la entrada en vigor de este Decreto los Consejeros titulares de los Departamentos de Industria y Energía, de Cultura, de Economía, Planificación y Medio Ambiente, de Urbanismo y Vivienda y de Comercio y Turismo procederán a presentar al Lehendakari, para su aprobación, los proyectos de reglamentos orgánicos respectivos, en la medida que sea precisa su adecuación a lo establecido en el presente Decreto, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 26.2 de la Ley de Gobierno.

**Segunda.-** El Departamento de Hacienda y Finanzas realizará las operaciones presupuestarias necesarias para dar cumplimiento a lo dispuesto en el presente Decreto.

**Tercera.-** Una vez que los Consejeros de Educación,

Sailburua, Zuzentza Sailburua, Lan eta Gizarte Segurantza Sailburua eta Ekonomia, Plangintza eta Ingurugiro Sailburua beren lantokiaz jabetu ondoren, irailaren 16ko 489/1991 Dekretuak eta irailaren 23ko 495/1991 Dekretuak horiei dagozkien egitekoak Kultura eta Turismo Sailburuaren, Lehendakaritza, Lege Araubide eta Autonomi Garapenerako Sailburuaren eta Industria eta Merkataritza Sailburu den Lehendakariordearen esku, hurrenez hurren, jartzen dituen behin-behineko izendapena indargabetuta geldituko da.

*Laugarrena.- Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren bihamonean hartuko du indarra Dekretu honek.*

Vitoria-Gasteiz, 1991ko urriak 2.

Lehendakaria,  
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

Universidades e Investigación, de Justicia, de Trabajo y Seguridad Social y de Economía, Planificación y Medio Ambiente hayan tomado posesión de sus cargos, quedarán sin efecto la asignación temporal del ejercicio de funciones que el Decreto 489/1991, de 16 de septiembre, y el Decreto 495/1991, de 23 de septiembre, atribuyen, respectivamente, a los Consejeros de Cultura y Turismo, de Presidencia, Régimen Jurídico y Desarrollo Autonómico y al Vicelehendakari y Consejero de Industria y Comercio.

*Cuarta.- El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.*

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 2 de octubre de 1991.

El Lehendakari,  
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

## HERRIZAINGO SAILA

2951

**ERABAKIA, 1991ko irailaren 24ekoa, Segurtasun Sailburuordearena, Euskal Autonomi Elkarteko Ertzaingoaren egitura organikoa eta egitekoena handiagozten duena.**

Herritarren Segurtasunerako Zuzendaritzak egitura organikoa eta egitekoena handiagotzekeo egindako proposamena ikusita, Herritarren Segurtasunerako Zuzendarriak bere eskuduntzen ihardunean emandako aginduak eta arteztaraauak, Elkarteko Lurralde Historiko bakoitzean, zuzen egin daitezela koordinatu eta ikuska tu dezan ihardute-sail bat Euskal Autonomi Elkarteko Ertzaingoaren egituraren sartu behar dela eskatzen bait du eta horri erantzuteko, honako hau

### ERABAKI DUT:

*Atal bakarra.- Euskal Autonomi Elkarteko Ertzaingoaren egituran, Agindu honen eraskinean zerrendatzent diren lanpostuak sortzen dira.*

## AZKEN XEDAPENA

Erabaki hau 1991ko irailaren 30ean jarriko da indarrean eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

Vitoria-Gasteiz, 1991ko irailak 24.

Segurtasun Sailburuordea,  
JOSE MANUEL MARTIARENA LIZARAZU.

## DEPARTAMENTO DE INTERIOR

2951

**RESOLUCION de 24 de septiembre de 1991, del Viceconsejero de Seguridad, por al que se procede a una ampliación de la estructura orgánica y funcional del Cuerpo de Policía de la Comunidad Autónoma del País Vasco.**

Ante la propuesta de modificación de la plantilla orgánica y funcional elevada por la Dirección de Seguridad Ciudadana al objeto de dar satisfacción a la necesidad de incorporar, en la estructura del Cuerpo de Policía de la Comunidad Autónoma del País Vasco un órgano que, a nivel de Territorio Histórico de la Comunidad, coordine y supervise la correcta ejecución de las órdenes y directrices emanadas del Director de Seguridad Ciudadana en el ejercicio de sus competencias,

### RESUELVO:

*Artículo único.- Crear, dentro de la estructura del Cuerpo de Policía de la Comunidad Autónoma del País Vasco, las plazas que se relacionan en el anexo de la presente Orden.*

### DISPOSICION FINAL

La presente Resolución entrará en vigor el día 30 de Septiembre de 1991, y se publicará en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 24 de septiembre de 1991.

El Viceconsejero de Seguridad,  
JOSE MANUEL MARTIARENA LIZARAZU.